

B

Bilbao

BILBOKO KALEALDIA

KALEKO
ANTZERKI &
ARTEEN
JAIALDIA

26

FESTIVAL D
TEATRO Y
ARTES D
CALLE



Ekainak · Junio 30 2025 Uztailak · Julio 5

bilbokokalealdia.eus



KULTURA JASANGARRIA
CULTURA SOSTENIBLE



BABESLEAK:



HEMENGO BAZKIDEA DA:



bilbokokalealdia.eus



B
Bilbao



BITARTEKARITZA-JARDUERAK

Aurten, BILBOKO KALEALDIA kide den Open Kale (Kale Jaialdien Sarea) eta Artekale (Euskal Herriko Kale Arteen Elkarte), Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, hainbat jarduera bideratzen ari dira kaleko artisten eta ikusleen arteko topaketa sustatzeko. Ikuskizun, tailer edo prozesuetan parte hartu ondoren emango diren hitzaldiek, besteak beste, betekoa dute Euskadiko 2025eko udako agenda.

DIZIPLINA BATEN AURKIKUNTZA

Tailerra San Frantziskoko Udal Zentroan emango du ARRIERA konpainiak 7 eta 14 urte bitarteko haur eta nerabeentzat, marotte txotxongiloak ezagutzeko eta esploratzeko, pertsonaiak sortuz, animazioaren bidez eta gorputz-adierazpenaren bidez.

IKUSKIZUN OSTEKO SOLASALDIAK

Emanaldiaren ondorengo solasaldia, ikuskizuna sortzeko prozesua hurbilagotik ezagutzeko:

- HARROBIA DANTZA BERTIKALAREN emanaldiaren ondoren Bizkaia Aretoan UPV/EHU (uztailaren 3an, ostegunean, 22:30ean)
- MANTTALINGO ALABAREN emanaldiaren ondoren, Doña Casilda parkean (uztailaren 3an, osteguna, 19:30ean)

IKUSKIZUN BATEAN PARTE HARTZEA

20 pertsona inguruk LLUM DE FIDEU konpainiaren tailer batean parte hartuko dute, Sfumato ikuskizunean figurante gisa parte hartzeko. Ikuskizuna ekainaren 30ean (17:45 eta 20:15) eta uztailaren 1ean (18:00 eta 20:30) ikusi ahal izango da.

EKAINA

ASTELEHENA 30	
CASILDA ITURRIZAR PARKEA	
17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK	
TOÑO VALDIVIESO (Euskal Herria) (arratsalde osoa)	
17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)	
MAMA CREA (Euskal Herria) Desiderata (4 ordu)	
17:15 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)	
SOUL PROJECT (Frantzia) Soul Project (25 min)	
17:45 PERGOLA - AHATEEN URMAELAREN INGURUAK	
LLUM DE FIDEU (Katalunia) Sfumato (ensayando para la caída de los contornos) (50 min)	
18:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)	
ESCARLATA (Katalunia) Devoris Causa (60 min)*	
18:45 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (3. GUNEA)	
KOMOREBI PRODUKZIOAK (Euskal Herria) Argilunak (25 min)	
19:00 PERGOLARANTZ PASEALEKUA	
CHAUSSENS ROUGES (COMPAGNIE DES) (Belgika) Épiphytes (45 min)	
19:45 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)	
SOUL PROJECT (Frantzia) Soul Project (25 min)	
20:15 PERGOLA - AHATEEN URMAELAREN INGURUAK	
LLUM DE FIDEU (Katalunia) Sfumato (ensayando para la caída de los contornos) (50 min)	
21:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)	
ESCARLATA (Katalunia) Devoris Causa (60 min)*	
21:15 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (3. GUNEA)	
KOMOREBI PRODUKZIOAK (Euskal Herria) Argilunak (25 min)	
ARRIAGA PLAZA	
22:00 PSIRC CÍA. (Katalunia) Després de tot (40 min)	

UZTAILA

MARTITZENA 1	
CASILDA ITURRIZAR PARKEA	
17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK	
TOÑO VALDIVIESO (Euskal Herria) (arratsalde osoa)	
17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)	
MAMA CREA (Euskal Herria) Desiderata (4 ordu)	
17:15 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (3. GUNEA)	
PAU PALAUS (Katalunia) Embolic (45)	
18:00 PERGOLA - AHATEEN URMAELAREN INGURUAK	
LLUM DE FIDEU (Katalunia) Sfumato (ensayando para la caída de los contornos) (50 min)	
18:15 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)	
ESCARLATA (Katalunia) Devoris Causa (60 min)*	
19:00 PERGOLARANTZ PASEALEKUA	
CHAUSSENS ROUGES (COMPAGNIE DES) (Belgika) Épiphytes (45 min)	
19:45 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)	
NIMÚ (Euskal Herria) Pausa (45 min)	
20:30 PERGOLA - AHATEEN URMAELAREN INGURUAK	
LLUM DE FIDEU (Katalunia) Sfumato (ensayando para la caída de los contornos) (50 min)	
21:15 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)	
ESCARLATA (Katalunia) Devoris Causa (60 min)*	
21:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (3. GUNEA)	
PAU PALAUS (Katalunia) Embolic (45)	
22:30 PERGOLA	
ATX TEATROA (Euskal Herria) Marmarra (85 min)	

UZTAILA

EGUAZTENA 2

CASILDA ITURRIZAR PARKEA
17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK
TOÑO VALDIVIESO (Euskal Herria) (arratsalde osoa)
17:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)
COMPAGNIE SUPER SUPER (Frantzia) Plouf & Replouf (45 min)
18:00 ARTE EDERREN MUSEOAREN GUNEA
MARKELIÑE (Euskal Herria) Artilusio (50 min)
18:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (3. GUNEA)
CLAIRE DUCREUX (Katalunia) Fleurir les abîmes (30 min)
19:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)
DDCDANZA – DANIEL DOÑA (Madril) Doma (25 min)
19:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)
LA PEZ (Euskal Herria) Plaza (50 min)
20:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)
COMPAGNIE SUPER SUPER (Frantzia) Plouf & Replouf (45 min)
20:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (3. GUNEA)
CLAIRE DUCREUX (Katalunia) Fleurir les abîmes (30 min)
21:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)
DDCDANZA – DANIEL DOÑA (Madril) Doma (25 min)
ARRIAGA PLAZA
22:00 LA CORCOLES (Katalunia) Karena (45 min)

UZTAILA

EGUENA 3

CASILDA ITURRIZAR PARKEA
17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK
TOÑO VALDIVIESO (Euskal Herria) (arratsalde osoa)
17:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)
ARRIERA (Euskal Herria) Libre (40 min)
18:00 ARTE EDERREN MUSEOAREN GUNEA
MALETA COMPANY & BALANCETOI CIE. (Belgika) Claudette (40 min)
18:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)
PIKZ PALACE (Frantzia) Boucherie bacul (30 min)
19:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)
LEANDRE CLOWN (Katalunia) Fly Me to the Moon (40 min)
19:30 PERGOLA
MANTTALINGO ALABA (Euskal Herria) Manttalingo alaba (60 min)
20:00 ARTE EDERREN MUSEOAREN GUNEA
MALETA COMPANY & BALANCETOI CIE. (Belgika) Claudette (40 min)
20:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)
PIKZ PALACE (Frantzia) Boucherie bacul (30 min)
21:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)
ARRIERA (Euskal Herria) Libre (40 min)
AREATZA
21:30 KOLEKTIV LAPSO CIRK (Katalunia) QOROQ (60 min)
BIZKAIA ARETOA – UPV/EHU
22:30 HARROBI DANTZA BERTIKALA (Euskal Herria) Geure(R)a (30 min)

UZTAILA

BARIKUA 4

CASILDA ITURRIZAR PARKEA
17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK
TOÑO VALDIVIESO (Euskal Herria) (arratsalde osoa)
17:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (3. GUNEA)
HIKA TEATROA (Euskal Herria) Atearen bestaldean (45 min)
18:00 PERGOLA
QABALUM (Nafarroa – Euskal Herria) Todo Este Ruido (23min)
18:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)
FACILE D’EXCES CIE. (Frantzia) Gros Débit (45 min)
19:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)
PIKZ PALACE (Frantzia) Boucherie bacul (30 min)
19:30 ARTE EDERREN MUSEOAREN GUNEA
CONCORDA (Portugal) Concorde (40 min)
20:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)
GUILLEM ALBÀ (Katalunia) Ma solitud (25 min)
20:00 PERGOLA
QABALUM (Nafarroa – Euskal Herria) Todo Este Ruido (23min)
20:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)
FACILE D’EXCES CIE. (Frantzia) Gros Débit (45 min)
21:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)
PIKZ PALACE (Frantzia) Boucherie bacul (30 min)
ARRIAGA PLAZA
22:30 KUKAI DANTZA (Euskal Herria) Yarin (60 min)

UZTAILA

ZAPATUA 5

CASILDA ITURRIZAR PARKEA
17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK
TOÑO VALDIVIESO (Euskal Herria) (arratsalde osoa)
17:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)
GUILLEM ALBÀ (Katalunia) Ma solitud (25 min)
18:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)
ZANGUANGO TEATRO (Euskal Herria) El peor espectáculo del mundo (de momento!!!) (60 min)
18:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)
TROTAMUNDOS CÍA. (Euskal Herria) Finito-Infinito (50 min)
19:00 ARTE EDERREN MUSEOAREN GUNEA
CONCORDA (Portugal) Concorde (40 min)
19:30 PERGOLA
BARSANTI CÍA (Euskal Herria) LJ 75l (60 min)
20:00 ARTE EDERREN MUSEOAREN GUNEA
CHICHARRÓN CIRCO FLAMENCO (Andaluzia) Empaque (50 min)
20:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)
GUILLEM ALBÀ (Katalunia) Ma solitud (25 min)
21:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)
ZANGUANGO TEATRO (Euskal Herria) El peor espectáculo del mundo (de momento!!!) (60 min)
ARRIAGA PLAZA
22:30 LA FAM PRODUCCIONS (Valentziako Erkidegoa) Ambulant (70 min)



* ESCARLATA: beharrezkoa sarrera eskuratzea (3€) www.bilbokokalealdia.eus web-orrian.
Batutako dirua ZAPOREAK SOLIDARIO GARAPENERAKO ELKARTEari emango zaio.

BILBOKO KALEALDIAN GOZATZEKO AHOLKUAK

- Kontsultatu programazioa jaialdiaren web gunean eta Bilbao Kulturaren sare sozialetan. Eragin jasangarritasunean!
- Begirunez jokatu artistekin, lanean ari dira guk ondo pasatzeko.
- Ez utzi bakarrik haurrak, bizi ezazu haiekin kaleko arteen esperientzia!
- Jarraitu ikuskizuna zuzenean, eta utzi kezkak albo batera (mugikorra barne).

Erdu Bilboko Kalealdira!

IKUSKIZUNEN IRISGARITASUNAREN INGURUKO PIKTOGRAMAK PICTOGRAMAS SOBRE LA ACCESIBILIDAD DE LOS ESPECTÁCULOS



Pertsona gorrak edo entzumen-arazoak dituztenak
Espectáculos aptos para personas sordas o con problemas auditivos



Mugikortasun urriko pertsonentzako ikuskizun irisgarriak
Espectáculos con reserva de espacios para personas con movilidad reducida



Beharizan bereziak dituzten pertsonentzat gordetako eserleku eta espazioak
Reserva de asientos y espacios para personas con necesidades especiales

IKUSKIZUN MOTEI BURUZKO PIKTOGRAMAK PICTOGRAMAS SOBRE LOS TIPOS DE ESPECTÁCULO



ANTZERKIA
TEATRO



DANTZA
DANZA



DANTZA BERTIKALA
DANZA VERTICAL



IBILTARIA
ITINERANTE



KLOWNA
CLOWN



ZIRKUA
CIRCO



MUSIKA
MÚSICA



TXOTXONGOLOAK
TÍTERES



IRAKURKETA POETIKOA
LECTURA POÉTICA



INSTALAZIOA
INSTALACIÓN

PUBLIKOARI BURUZKO PIKTOGRAMAK / PICTOGRAMAS SOBRE PÚBLICO



DENONTZAT
TODOS LOS PÚBLICOS



GOMENDATUTAKO ADINA
EDAD MÍNIMA

Argazkia / Fotografia: **UMORE AZOKA (Leioa)**



ARRIERA
(Euskal Herria)
"Libre"

Testurik ez

3
UZTAILA

EGUENA
17:30 / 21:00

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren
Inguruak (1. gunea)



Laburpena

Libre antzerki bisuala, maskarak eta txotxongiloak uztartzen dituen ikuskizuna da, gure artean eta nahi dugun horretara lotzen gaituzten harien arteko oreka aurkitu beharrari buruzkoa.

Emakume baten eta txoritxo baten arteko loturaren istorioa, hari, saski eta bilbeen bidez habiak egiten eta kaiolak desegiten dituztenak.

Pieza honek elkarrekin uztartzera gonbidatzen gaitu, norbera izan nahi duena izango den babesleku bat egiteko.

arriera.eu



ATX TEATROA
(Euskal Herria)
"Marmarra"

Euskara

1
UZTAILA

MARTITZENA
22:30

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Pergola



Laburpena

Zer astakeria egiteko kapaz da gizakia bere buruagatik?, eta zer ez du sekula ere egingo? Mundua zoratuta dago; itsasontzi hau lemazain barik doa, eta gu, barruan gagoz...

Jendartearen ahots, desira eta ametsen artean, marmar beldurgarri baten mehatxua ailegatzen zaigu; gure bihotzean oharkabean piztuz eta handituz doa izenik gabeko ezinegon bat. Gure erantzuna bizitzaren aldeko garrasi mingarria da, maite dugun guztiaren aldeko aldarri basatia.

atxteatroa.eus



BARSANTI CÍA. (Euskal Herria) "LJ 75"

Euskara

5
UZTAILA

ZAPATUA
19:30

CASILDA ITURRIZAR
PARKEA
Pergola



Laburpena

Azkenean iritsi da eguna. Gaur aurkeztuko da mundu guztiak ahotan duen kanpaina soziala. Sustatzaileek "aro berri baten hasiera" gisa deskribatzen dute. Askatasunaz, eskubideez eta justiziaz hitz egiten digute. Kontzeptu horiek, dirudienez, hainbat norabide dituzte.

Zer dago LJ75en atzean? Zein dira bere benetako asmoak? Nortzuk dira oraindik inork ikusi ez dituen "sustatzaile eraginkor" horiek?

Premisa horrekin, "Cia. Barsantik" kaleko lan berria aurkeztuko du. Inguratzen gaituzten populismoen arriskuaz hitz egiten duen komedia bat da. Eta ez diogu inori begiratzen.

ciabarsanti.eus



CHAUSSENS ROUGES (COMPAGNIE DES) (Belgika) "Épiphytes"

Testurik ez



Laburpena

Épiphytes espazio publikorako ikuskizun bat da, lau dantzari akrobatek metalezko egitura altu baten gainean egiten dutena. Erakusketak basoa urkeztzen du, aldi berean bizia eta onirikoa, denboratik kanpooka, misterioitsua: zentzumen anitzeko komunikazioen eta topaketen toki bat, nahasmen- eta beldur-espazio bat, jolas-patio bat eta askatasun-adierazpen bat. Mugimenduan dauden gorputzen orkestra bat, ikuskizun koreografiko bizi eta hunkigarria.

Mundua esploratzeko arrazoia ez da nahikoa, beste gaitasun emozional eta sentzorial batzuk ere behar baitira. Abiapuntu horrekin, *Épiphytes*-eko artistak horretan saiatzen dira.

EKAINAK 30
ASTELEHENA
UZTAILAK 1
MARTITZENA

19:00

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Paseo hacia
la Pergola

ciedeschaussonsrouges.be



CHICHARRÓN CIRCO FLAMENCO (Andaluzia) "Empaque"

Testurik ez

5

UZTAILA

ZAPATUA
20:00

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Arte Ederren
Museoaren Gunea



Laburpena

Empaque ikuskizunean, zirkuak eta flamenkoak bat egiten dute lengoaia berezi batean, identitateari buruz hitz egiteko.

Egileak, bolanteen, kanten eta piloten artean oinez, ezarritako mugak zeharkatu, eta bere muinera eramango gaitu. Hor, segurtasun eza eta indarguneak konpasaren, jaurtiketen, erreboten eta intzirien bidez lotzen dira.

Bada, zalantza sortu arren, erabakia hartuta dago. Eta orain marjina horren gainean ibiltzea baino ez da geratzen, funambulista bat tenplu batera doanean bezala... *Empaque*-ren tenplura.

chicharroncircoflamenco.com



CLAIRE DUCREUX (Frantzia) "Fleurir les abîmes"

Testurik ez

2

UZTAILA

EGUAZTENA
18:30 / 20:30

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren
Inguruak (3. gunea)



Laburpena

Dantza-pieza bisual bat da, munduaren bihotzean gozotasun-zuhaitz bat landatzeko desira bizitik sortua. Dena –baita ura eta denbora ere– harea bihurtzera kondentatuta dagoela dirudien leku batean, emakume bat eta zuhaitz bat daude. Zuhaitza da haren bizkarrezurra eta konfidentea. Emakumea, irribarrea eta dardarak. Bizitzatik sortzen diren poema eta itxaropenak. Elkarrekin, abismoak loratzeko.

Pieza bisual eta poetiko honekin, "Claire Ducreuxek" agur esaten dio oholtzari antzezle gisa, ibilbide luze eta arrakastatsu baten ondoren.

claireducreux.com



COMPAGNIE SUPER SUPER (Frantzia) "Plouf & Replouf"

Testurik ez

2
UZTAILA

EGUAZTENA
17:30 / 20:00

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren
Inguruak (1. gunea)



Laburpena

Antzezten den igerilekua bezain sakona da ikuskizun hau. Nortzuk dira? Igeriketa sinClownizatuko duo bat.

Tandem hau, bere kirolari-itxurarekin, pailazo pare bat da batez ere. Agerpen sinkronizatu horren ondorioz, igerilariak dirudite. Haien mugitzeko erak eta urmaelaren estutasunak erridikulutasuna iragarri eta areagotu baino ez dute egiten. Normalean kodetuta dagoen esposizio hori ezin da adostutakoaren arabera egin. Baldarkeria gonbidatu itzaltsua da, denon gozamenerako.

ciesupersuper.com



Argazkia / Fotografia: **Carolina Frazão**

CONCORDA (Portugal) "Concorda"

Testurik ez

**BARIKUA 4
ZAPATUA 5**

19:30 (BARIKUA)
19:00 (ZAPATUA)

CASILDA ITURRIZAR
PARKEA
Arte Ederren
Museoaren Gunea



Laburpena

Soken mugimenduaren eta manipulazioaren bidezko bidaia. Soka, konexioaren, loturaren eta batasunaren sinbolo. Sokak samurtasunez besarkatzen du, materialismoa gainditzen duen truke emozionala sortuz. Behin luzatuta, sokatik harago hedatzen den bibrazio bat sortzen du.

Soka tentsioan eta distentsioan. Lotzen eta askatzen duena. Inplikatzeko, libratzen edo oratzen duena. Indar dinamikoaren joko batean. Elastikoa, magnetikoa, eta grabitatea, pisua eta kontrapisua.

Suspentsiotik ia erortzeraino. Hari baten gaineko orekan.

Mais Imaginarius 2024 saria

Mostra Nacional de Jovens Criadores antzerki-saria

Argazkia / Fotografia: **Beatrix Molnar**



**DDCDANZA –
DANIEL DOÑA
(Madril)
“Doma”**

Testurik ez

**2
UZTAILA**

EGUAZTENA
19:00 / 21:00

**CASILDA
ITURRIZAR PARKEA**
Ahate Urmaelaren
Inguruak (2. gunea)



Laburpena

Pieza honek etxekotzearen kontzeptua errebelatzen du, gisa tratatzen du, tradizioaren kultura-errotuak eta hibridazio koreografikoaren berezko formen arteko pulstua egitea ahalbidetzen duena.

Flamenkoaren, dantza espainiarraren eta garaikidearen artean, hainbat kontzeptu arakatzeko, esate baterako, krudeltasuna, botere-abusua eta ohoreak, ohiturek edo sinesmenek sorrarazitako indarkeria. Dantzaren bidezko matxinada-egintza bat, erresistentzia-praktiketan eta itunetan inspiratzen dena, jakitun izanik araua iraultzea dela salbaziorako bide bakarra.

ddcdanzadanieladona.com

Argazkia / Fotografia: **Boris Zapata**



**ESCARLATA
(Katalunia)
“Devoris Causa”**

Testurik ez

**ASTELEHENA 30
JUNIO
MARTITZENA 1
UZTAILA**

18:00 / 21:00
(ASTELEHENA)
18:15 / 21:15
(MARTITZENA)

**CASILDA
ITURRIZAR PARKEA**
Ahate Urmaelaren
Inguruak (4. gunea)



Laburpena

Devoris Causa iragana, oraina eta etorkizuna da, eta, batez ere, irudimena, horixe baita neurri eta katalogazioetatik kanpo dagoen espaziorik denboragabeena, askatasun-espazio nagusia.

Espazio zirkular baten intimitatean eskaintako ikuskizuna, non bi pertsonaiaren mugimenduaren poesiak emozioen pluskuanperfektu mugagabearen iraganeko etorkizunera eramango gaituen. Elementuen manipulazioak, kasu honetan barazkienak, sukaldaritzako lurin zaporetsuenekin historia krudel eta arrunt bat azaltzeko balio digu. Mugimendurekin esperimendatuz, eta espero ez dugunean zirkua barra-barra darian pertsonaia batzuen dramaturgian sakonduz, istorioari zapore gazi-gozoa, mina, mikatza eta gazia ematen zaio. Ez da sukaldaritzako, zirkuko, dantzako edo antzerkiko ikuskizun bat; eguneroko erritual baterako gonbidapena da, intrigaz, dastaketaz, balentriaz, mugimenduz eta dramaz betea.

Sar zaitezte zulo honetan, eta egin men usain bikain havei.

Probatu, eta gero hitz egingo dugu.

On egin!

escarlata.com

Argazkia / Fotografia: Cleo Kiddo



FACILE D'EXCES
(Frantzia)
"Gros débit"

Testurik ez

4
UZTAILA

BARIKUA
18:30 / 21:00


CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Añate Urmaelaren
Inguruak (2. gunea)



Laburpena

Helburua arintasun-une bat eskaintzea da, musikaz eta clownez betea, non interesa, bai jotzeko moduan, bai musikan bertan datzan. Pertsonaien arteko eta ikusleekiko jokoak bultzatzea, hainbat irakurketa-maila egon daitezzen, ahalik eta pertsona gehienengana iristeko moduan. Ikuskizun honen asmo nagusia mundu guztiari barre eginaraztea da... Hiru konplize hauen helburuak baino ezin du hori berdindu: kosta ahala kosta handik irtetea! Minutu batzuetan dena muntatu/desmuntatu daiteke, dena kabitzen da 3 gurpileko poltsetan... Pertsonaiei eta haien gauzak egiteko moduei erreparatzen diegu! Hori dela-eta, bidaia trenez, hegazkinez, bizikletaz edo asto gainean egingo dugu.

faciledexces.blogspot.com



GUILLEM ALBÀ
(Katalunia)
"Ma Solitud"

Testurik ez

BARIKUA 4
ZAPATUA 5
UZTAILA

20:00 (BARIKUA)
17:30 / 20:30 (ZAPATUA)

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Añate Urmaelaren
Inguruak (1. gunea)



Laburpena

Txotxongiloen bidezko ikuskizun artisauek, umoretsu eta hunkigarri hau komediatik poesiarako bidaia bat da, eta eskuak dira abiapuntua. Alde gizatiarrak duen garrantzia gogorarazteko esperientzia da, soila eta partekatua.

Formatu txikiko ikuskizun onenaren saria 2023ko FETEN sarietan

Interpretaziorik onenaren saria Lleidako 2023ko Fira Titelles jaialdian

Ikuskizun onenaren saria Fundaoko (Portugal) 2023ko Iberiar Penintsulako Antzerki Azokan

guillemalba.com



HARROBI DANTZA BERTIKALA (Euskal Herria) "Geure(R)a"

Testurik ez

3

UZTAILA

EGUENA
22:30

BIZKAIA ARETOA –
UPV/EHU



Laburpena

Geure(R)a naturaren, poesiaren, dantzaren eta bideo mapping-aren arteko elkarrizketa planteatzen du. Juanxo Zeberioaren musikak, Toti Martínez de Lezearen bertsoek eta Paco Gramajeren proiektio animatuek aberastu egiten dute hiru dantzarik egindako koreografia esekia.

Obraren helburu nagusia euskal kulturaren sorginen iruditeria eta istorioak ikusarazten eta berreskuratzen laguntzea da, helburu hori errealitate batean oinarrituz: istorio horiek desagertzen ari dira.

Geurea *Geure(R)a*, Geurean zintzilik.

Nortzuk dira gaur egungo sorginak?

Aipamen berezia 2023ko Leioako Umore Azokan

harrobi.eus



HKA TEATROA (Euskal Herria) "Atearen bestaldean"

Testurik ez

4

UZTAILA

BARIKUA
17:30

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren
Inguruak (3. gunea)



Laburpena

Atearen bestaldean pertsonok egoera kaltegarriak gainditzeko dugun gaitasuna eta erresilientzia lantzen duen ikuskizun parte-hartzailea da. Ate bat ireki eta gurutzatu. Ate bat ireki eta gonbidatu. Bata zein bestea itxaropen- eta alaitasun-ekintza txikiak dira, eta eginerrazak dirudite; hainbatetan, ordea, ezinezko bihurtzen dira.

Ikuskizun honek ateak irekitzera eta bestaldean dagoenaz goatzera gonbidatzen du ikuslea.

hikateatroa.eus



**KOLEKTIV
LAPSO CIRK**
(Katalunia /
Gaztela eta Leon)
"QOROQ"

Testurik ez

3
UZTAILA

EGUENA
21:30

AREATZA



Laburpena

Non dago orekaren azken muga? Une perfektu horretan, badirudi grabitatearen legeak garaituta, gaindituta eta desagertuta daudela. Non dago gure ahalmenen muga?

"Kolektiv Lapso Cirk" konpainiaren lan berriak estetika soil eta zainduaren aldeko apustua egiten jarraitzen du, eta horri egitura autosostengatzaile handia eta kortxozko zorua gehitzen zaizkio, agertoki gisa. Horrek aukera ematen du helmuga berriak esploratzeko, ikuskizuneko objektu protagonistekin – forma desberdinetako zurezko habeekin– ezinezko orekak eta balentria fisikoak probatzeko.

lapsocirk.com

Argazkia / Fotografia: **UMORE AZOKA (Leioa)**



**KOMOREBI
PRODUKZIOAK**
(Euskal Herria)
"Argilunak"

Testurik ez

30
JUNIO

ASTELEHENA
18:45 / 21:15

**CASILDA
ITURRIZAR PARKEA**
Ahate Urmaelaren
Inguruak (3. gunea)



Laburpena

Argilunak diziplinarteko kale emanaldi bat da, dolu-prozesu batetik sortu dena.

Bizitzan aurki ditzakegun askotariko mugei buruzko hausnarketa sakona du oinarri: muga fisikoak, sozialak, linguistikoak zein kulturalak. Muturren arteko konplexutasunari gorazarre egin nahi zaio, barneratuta eta sinestuta ditugun mugak zalantzan jarri, lausotu eta mugez haratagoko aukerei lekua emateko.

**Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroe-
skualdeak kofinantzatutako proiektua**



KUKAI DANTZA (Euskal Herria) "Yarin"

Testurik ez

4
UZTAILA

BARIKUA
22:30

ARRIAGA PLAZA



Laburpena

Proiektu honetan, Jon Maya eta Andrés Marinek euren sorkuntza eta esperientzia batzea erabaki dute, haietan euskal kulturak eta flamenkoak dituzten elementu komunetan sakonduz, euren jatorrietan oinarrituta eta sustrai horietatik elkarrizketa sustatuta. Jatorri euskalduna eta flamenkoa duten dantzak uztartze nahiak batu ditu bidean. Julen Achiary kantari eta musikari baionarra lagun dute oholztan.

kukai.eus



Argazkia / Fotografia: Txus Garcia

LA CORCOLES CÍA. (Katalunia) "Carena"

Testurik ez

2
UZTAILA

EGUAZTENA
22:00

ARRIAGA PLAZA



Laburpena

Funambulismo-ikuskizun honek –kable gaineko oreka, altuera garai batean– diziiplina humanizatu nahi du, publikoarengana hurbilduz, eta emoziotik, gorputzetik eta keinuaren eta dantza-antzerkiaren hizkuntza unibertsalek eguneratuz. Proposamen plastiko arriskatua da. Indar berezia hartzen dute hemen erronkak, sugestioak eta irudien sinbologiak.

2024ko Fira Tàrrrega-ko kaleko estreinaldi onenaren saria.

cialacorcoles.com

Argazkia / Fotografia: **Vicent Doñate - Lluerna Creació**



**LA FAM
PRODUCCIONS
(Valentziar
Erkidegoa)
"Ambulant"**

Testurik ez

**5
UZTAILA**

ZAPATUA
22:30

ARRIAGA PLAZA



Laburpena

Zirku txiki eta xelebre bat hirira iritsi da, maletaz eta kutxez zamatutako gurdiekin ehunka kilometro egin ondoren. Finkatzeko leku aproposa bilatu dute. Inork ez daki nondik datozen baina, diotenez, haien kideen artean espektakuluko artistarik trebeenetako batzuk daude.

Artistek eta musikariek zuzenean muntatzen eta prestatzen dute emanaldirako eszenografia guztia. Zirkua familia handi bat da. Elkarrekin bizi, jan eta lo egiten dute. Maitemindu, eztabaidatu, dantzatu, jolastu, borrokatu... dena elkarrekin.

Ambulant XX. mende hasierako azken zirku klasikoei eskainitako omenaldia da. Proposamen poetiko eta intimista bat, inora ere ez doan bidaiaren ideari buruzkoa.

Familia-ikuskizun onenaren saria, Mostra de Alcoy 2022

Zirku-ikuskizun onenaren saria 2023ko Valentziako Arte Eszenikoen Sariketan

Zirku-ikuskizun onenaren saria 2024ko FETEN – Ume eta Familientzako Arte Eszenikoen Xixongo Nazioarteko Azokan

lafamproduccions.es

Argazkia / Fotografia: **Hodei Torres**



**LA PEZ
(Euskal Herria)
"Plaza"**

Euskara

**2
UZTAILA**

EGUAZTENA
19:30

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren
Inguruak (4. gunea)



Laburpena

Plaza antzezlanean, pertsona batzuek aspalditik gordeta dituzten gauzak kontatu eta egiten dituzte. Nire amamak ezkutuan idazten zituen gutunak eta egunerokoa ere irakurtzen dituzte. Gizon batek kontrabaxua jotzen du, eta emakume batek pagoenborrak mozten eta harri ikaragarriak altxatzen ditu. Ni ere ateratzen naiz antzezlanean, eta sekretu bat kontatzen dut", Noa García, 9 urte. La Pez konpainiaren zigilu nahastezina daraman proposamena: mintzairen fusioa, publikoarekiko hurbiltasuna eta inprobisazioa.

Euskadiko ikuskizun onenaren saria 2024ko Umore Azokan

lapezteatro.com



LEANDRE CLOWN
(Katalunia)
"Fly Me to the Moon"

Testurik ez

3
UZTAILA

EGUENA
19:00

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren
Inguruak (2. gunea)



Laburpena

Tandema: bi lagunentzako bizikleta.

Bidaia: hemen eta kanpoan gertatzen den guztia.

Ilargia: guztion patua, esna amets egin nahi dugunean.

Clown-duoa: hondamendiaren eta poesiaren funanbulistak.

Bizikleta hegalaria, egurra, burdina, hautsa, zapata lodiak eta kapelak bekainetaraino. Ilargiaren zain gaude. *Fly Me to the Moon* da bi pailazoren bidaia posiblea ilargirantz. Ameslariaren balentria da, bi errugaberen balentria.

leandreclown.com



Argazkia / Fotografia: **Toni Torrilas**

LLUM DE FIDEU
(Katalunia)
"Sfumato
(ensayando para
la caída de los
contornos)"

Testurik ez

EKAINAK 30
ASTELEHENA
UZTAILAK 1
MARTITZENA

17:45 / 20:15
(ASTELEHENA)
18:00 / 20:30
(MARTITZENA)

PERGOLA
Alrededores del
Estanque de los Patos



Laburpena

Pertsona eta beste izaki bizidun batzuek inguratuta bizi gara. Zergatik hartzen ditugu kontuan bizitza batzuk, eta besteak ez? Enpatizatu al dezakegu zuhaitz, arrain edo txori batekin? Nola eralda gaitzake haien azalean jartzeko ahaleginak?

Sfumato hausnarketa poetiko, ibiltari eta murgiltzaile bat da, gugandik ezberdinak direnekin harremanetan jartzeko dugun moduari buruzkoa, eta hiri-espazio publikoa, kontzientzia handiagoarekin edo txikiagoarekin, partekatzen dugun beste espezieetan jartzen du arreta. Askotan, gure mendebaldeko ikuspegi antropozentrikoak mundutik eta gainerako izaki bizidunengandik bereizita sentiarazten gaitu. Fikziozko piramide baten gailurrean kokatuta, ustiatu beharreko baliabide gisa ikusten ditugu besteak, apaingarri gozagarri gisa, edo baztertu beharreko eragozpen gisa.

Sfumato gonbidapen bat da, une batez baino ez bada ere, begirada hori alde batera uzteko, bestearen larruan (lumetan, ezkatetan edo azalean) jartzen saiatzeko, mundua haren ikuspegitik ikusiz.

Kataluniako Kritikaren XXV. Sarietan finalista (ahots berriaren kategorian)

Konpainia hasiberri onenaren saria Rue de Ramonville-ko 2023ko Jaialdian (Frantzia)

Ikuskizun onenaren saria Valladolideko 2024ko TAC Jaialdian

Kaleko ikuskizun onenaren saria Igualadako Mostra-n, 2024an.

orainbizirkoteatro.com



**MALETA COMPANY
& BALANCETOI CIE.**
(Belgika)
"Claudette"

Testurik ez

3
UZTAILA

EGUENA
18:00 / 20:00

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Arte Ederren
Museoaren Gunea



Laburpena

Claudette biloba jostari baten eta amona samur, ameslari eta ipurterre baten istorioa da. Egun osoan bakarrik eta eserita egoteaz nekatuta eta egunero-egunero zopak eta pureak jateaz aspertuta, amonak berriro bizirik sentitu nahi du; izan ere, 90 urte ez dira egunero ospatzen!

Zahartzaroari, gure amonei, jakinduriaz eta esperientziaz beteriko zimur horiei egindako omenaldia da. Malabareen eta txotxongiloen ikuskizun komiko eta poetikoa, ikuskizunaren sortzaile eta txotxongilo-interprete den Sararen amonarengan inspiratua. Sararen amonak artista izatearekin amets egin zuen, baina, bere adineko emakume askok bezala, ametsak alde batera utzi behar izan zituen besteen zerbitzura egoteko.

Munduko ikuskizun onenaren saria Leioako 2024ko Umore Azokan

Interpretazio onenaren saria Valladolideko 2024ko TAC Jaialdian

aireaire.com/maleta-company-cie-balancetoi



MAMA CREA
(Euskal Herria)
"Desiderata"

Euskara

EKAINAK 30
ASTELEHENA
UZTAILAK 1
MARTITZENA

17:00

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren
Inguruak (1. gunea)



Laburpena

Imajinatu leku bat non zainketak ez diren aukera bat, sendatzeko modu bakarra baizik. Leku hori existitzen da; *Desiderata* deitzen da: ospitale bat da, eta, bertan, liburuak dira pazienteak, eta sendabidea, ikaskuntza.

Desiderata instalazio bat da, zaintzak duen garrantziaz gogoeta eginarazten diguna irakurri eta idazteko espazio eta objektuak maitatzearen esperientziaren bitartez. *Desideratan*, paziente-liburuak ahalik eta arreta eta errespetu handienarekin tratatzen dituzte, bakoitzak bere istorioa eta ikasbidea baitu partekatzeko. Ospitale honetan, sendatzeko, sendagaien eta kirurgien orde, irakurketa eta hausnarketa erabiltzen dituzte.

mamacrea.com



MANTTALINGO ALABA (Euskal Herria) "Manttalingo alaba"

Euskara

3
UZTAILA

EGUENA
19:30


CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Pergola



Laburpena

Mikel Etxabururen poesia-liburuan oinarritutako errezitaldi musikatua. Liburuak Saturrarango kartzelan giltzapetuta egon ziren emakumeak (4.000 baino gehiago) gogoratzen eta aldarrikatzen ditu.

Gaur egun, jende asko autokarabanetan joaten da asteburua hara igarotzera, hondartzara...; lehen, aldiz, kartzela bat zegoen han. 1948an inauguratu zuten. Lehenago bainuetxe bat izan zen, baina errepresiorako espazio bihurtu zen.



Argazkia / Fotografia: Videostudi Arian Botey

MARKELIÑE (Euskal Herria) "Artilusio"

Euskara

2
UZTAILA

EGUAZTENA
18:00

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Arte Ederren
Museoaren Gunea



Laburpena

Artilusio "ilusio artistikoak" sortzen dituen tramankulu bat da. Imajina dezagun liburuz elikatzen den eta bihotz-taupaden erritmoan funtzionatzen duen itxura fantastikoko makina handi bat. Eta tramankulu horren ondoan, Greta, adineko emakume maitagarri bat, liburuz eta ipuinez osatutako liburutegi txikiaren inguruan atzera eta aurrera. Osasun delikatu du Gretak. Emakume berezia da, apetatsua eta fantasia zalea. Tramankulua bere liburuen fantasia birsortzeko jostailu handi bat bezalakoa da beretzat. Berarekin Pina zaintzaile gaztea dago. Pina Gretaren istorio eta fantasietan korapilatuko da.

Makinak Gretaren gustuen arabera fantasiazko egoerak sortuko ditu: literatura unibertsaleko pertsonaia misteriotsuak zein munduan zeharreko bidaia fantastikoak. Horiek guztiak ongi pasatzeko eta jolasteko agertoki bilakatuko dira.



NIMÚ (Euskal Herria) "Pausa"

Testurik ez

1 UZTAILA

MARTITZENA
19:45

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren
Inguruak (2. gunea)



Laburpena

Pailazo bat eta maleta asko. Ustekabeko bidaia honek leku batera eramango gaitu, non itxarotea ez den aspergarria, baizik eta olgetarako eta mugarik gabeko irudimenerako espazioa. "niMu"-k egoera absurdoak, inprobisatuak sortzen ditu, giro poetiko batean bilduta, zuzeneko biolontxelista baten laguntzari esker.

"ETENALDI bat, inora eramaten ez gaituen bidaia zorora itzuli aurretik".

cianimu.com



PAU PALAUS (Katalunia) "Embolíc"

Testurik ez

1 UZTAILA

MARTITZENA
17:15 / 21:30

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren
Inguruak (3. gunea)



Laburpena

Zintzoa, benetakoa, prestua eta bihurria.

Urrutitik datozen soka batzuen korapiloa.

Oso urrutitik datorren hari-nahaspila.

Pentsamendu eta emozioen nahaspila bat, barre egitera eta jolastera garamatzatenak, korapiloak askatzeko tresnarik baliotsuenak eta garbienak baitira.

ATSEGINTZEA, GOZATZEA, DIBERTITZEA, DISFRUTATZEA

Ikuskizun bat, baina, batez ere, clown bat, hitzak saihestuz keinua eta begirada erabiltzen dituenak, bakea eta jolasteko gogo askatzailea transmitituz.

ciapaupalaus.com



PIKZ PALACE
(Belgika)
"Boucherie Bacul"

Testurik ez

EGUENA 3
BARIKUA 4
UZTAILA

18:30 / 20:30 (EGUENA)
19:00 / 21:30 (BARIKUA)

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren
Inguruak (4. gunea)



Laburpena

Komedia zirraragarri eta ilun bat, beldurtientzat gomendatzen ez duguna.

Boucherie Bacul harategi-postu zaharraren barruan eta kanpoaldean, ezer ez da dirudiena. Harakin belgikar pare honek jaki goxoak prestatzen ditu... baina ez dago haragi izpirik bistan.

Azoken munduko tradizio handian, Bacul familiak artisau-produktuak aurkezten ditu. Ezer ez da espero duzuna bidaia-txabola zaharkitu eta txiki honetan.

Anberesko showman hauek –lehen begiratuan morbozale samarrak– gutizia zoragarriak prestatzen dizkizute, oso teknika bereziekin.

pikzpalace.be



Argazkia / Fotografia: **Francis Rodor**

PSIRC CÍA.
(Katalunia)
"Després de tot"

Testurik ez

30
EKAINA

ASTELEHENA
22:00

ARRIAGA PLAZA



Laburpena

Teknologia basati bat neurririk gabe hazten ari da padura bateko ihien arteko biodibertsitatean. Bertan, zirku-artisten familia bizi da aspalditik. Paisaia Alexak erabakitzen du, gizakien portaera probatzen duen adimen artifizialak. Nola erreakzionatuko dute, ikusten dutenean zikoinak ez direla gehiago habia hauetan biziko?

"PSIRC" konpainiak, tonu ludiko eta zinematografikoa erabiliz, umorez planteatzen du existentziaren paradigma berriak nola pentsatu.

Zirkolika 2023ko Sari Berezia

Epaimahaiaren Saria ARCA Jaialdian (Aguilar de Campoo) eta TALÍA Sarien Izendapena Zirkuko 2023ko Ikuskizun Onentzat.

psirc.net

Argazkia / Fotografia: **Bárbara Fernández**



QABALUM
(Nafarroa –
Euskal Herria)
“Todo Este Ruido”

Testurik ez

4
UZTAILA

BARIKUA
18:00 / 20:30

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Pergola



Laburpena

“Eta zu eta ni, hain urrunetik etorrita, kosmosa zeharkatuz honaino iritsi garenean, apurka-apurka urtuko gara dagoeneko osatzen dugun betikotasunean”. Bi gorputz eta drone batentzako pieza. Zientzia-fikzioaren iruditeriatik, komikiaren narrazio zatitu eta fotografikoetatik, ordenagailuz sortutako irudietatik (CGI), eta efektu berezietatik edaten du. Etorkizun posible bat marrazten duen poema dantzatu bat, kantu bat guri forma emateko denbora zeharkatzen duen argiari.

qabalum.com

Argazkia / Fotografia: **lafocalegourmande**



SOUL PROJECT
(Frantzia)
“Soul Project”

Testurik ez

30
EKAINA

ASTELEHENA
17:15 y 19:45

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren
Inguruak (2. gunea)



Laburpena

Kale-ikuskizunaren bat-batekotasunak bat egiten du ikuskizun eszenikoaren zorrotasunarekin, non emozioa askatzen den eta ikusleak harrituta geratzen diren, elitismoaren eta izaera herrikoia, gazteen eta ez hain gazteen arteko harresiak eraitsiz.

Gainelikatutako dantzen, akrobazia ikaragarrien eta umore kutsakorren nahasketa inteligentea.

“Soul Project”-ek bere karikatura eta akrobaziazko unibertsoa gonbidatzen gaitu.

soulproject.fr



Argazkia / Fotografia: **Bufalo Produksioak - Olga Ruiz**



TOÑO VALDIVIESO (Euskal Herria) BILBOKO KALEALDIKO Lorategia

Testurik ez



Laburpena

Bilboren birika berdeetako bat den Casilda Iturrizar parkea Bilboko Kalealdiaren lorategia bihurtzen da uztailaren, ikusteko, goatzeko, atseden hartzeko eta jolasteko ingurune batean arte eszenikoez goatzeko toki bat.

Parke honetan soilik hazten diren loreak eta zuhaitzak ikusiko ditugu, loreak ateratzen zaizkion urmael argiztatu bat...

Kontsumo jasangarriaren aldeko apustuan, hainbat material erabiliko ditugu (burdinak, ehunak, papera, zura, etab.), eta beste erabilera bat emango diegu objektu eta espazio berriak sortzeko.

EKAINAREN 30ETIK,
ASTELEHENA,
UZTAILAREN 5ERA,
ZAPATUA

17:00

PARQUE DE
DOÑA CASILDA
DE ITURRIZAR
Ahate urmaelaren
inguruak



TROTAMUNDOS CÍA. (Euskal Herria) "Finito-Infinito"

Testurik ez



Laburpena

Biribiltasunak ez du amaierarik. Ez dakigu non hasten edo amaitzen den.

Biribiltasun horretatik ateratzea aukeratu dezakegu? Zirkuluan ibiltzearen sentsazioarekin pasatzen gara mundutik, alegia, gauzak behin eta berriz bizitzearen sentsazioarekin, batzuetan bizkorrago eta beste batzuetan mantsoago. Baina eguneroko eta errutinazko jario horretan beti daude arrakalak. Baztertu al daiteke monotonía, eta gauzen norabidea aldatu? Zer da benetan garrantzitsua? Zerk bultzatzen gaitu gauzak egitera? Zerk bultzatzen gaitu zirkuluan jarraitzera? Zerk eragiten digu gelditzea, haustea, erritmoa aldatzea...?

Ikuskizun honek oso gai garrantzitsua aztertzen du – biribiltasuna –, umorea gure aliatu eta bizilagun bihurtuz.

5
UZTAILA

ZAPATUA
18:30

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren
Inguruak (2. gunea)

Argazkia / Fotografia: **UMORE AZOKA (Leioa)**



ZANGUANGO TEATRO

(Euskal Herria)

"El peor espectáculo
del mundo.
(de momento!!!)"

Gaztelera

5

UZTAILA

ZAPATUA
18:00 y 21:00

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren
Inguruak (4. gunea)



Laburpena

Dokumentu zoro bat, auzoko heroi bat protagonista duen "biopic" bat, beharrezkoa ez den izaki bat, denetarik egon behar delako existitzen dena.


Aurrekontu txikiarekin eta material eskasez beren burua eraikitzen duten pertsona horiekiko maitasun-adierazpena da.

Pieza komiko honen hizpidea dira norbait izan nahi eta, azkenean, untxiena bezalako bizitza dutenak, arrastorik utzi gabe batetik bestera saltoka, atzera begiratzean eskopetenganako beldurra baino ikusten ez dutenak.

"Non babestu ez dagoenean, barre egitea baino ez dugu".

zanguangoteatro.com

FOOD TRUCKS



TIPI TAPA

Zatoz eta gozatu Tipi Tapa-z. Hanburgesak, hotdogak, otartekoak, jalapeñoak, patatak baconarekin eta saltxipapa gazta-saltsarekin, pintxo ugari... eskainiko dizkizu bere menuan...

DANDO LA BRASA

"Dando la Brasa" bi sukaldaritza mundu uztartzen dituen proposamena eskaintzen digu: Peruko tradizioa eta Japoniakoak. Bere menuan, Nikkei janaria nabarmentzen da, bere freskotasunagatik eta zapore biziengatik ezaugarritzen dena. Atun cevichea, etxeko enpanadatxoak eta baoak bezalako platerak arretaz prestatzen dira, hainbat osagai konbinatuz: arrain freskoa, fusio saltsak, txingarren ukitu ketua... zigilu bereizgarria.

FOOD TRUCKS

EKAINAREN 30ETIK,
ASTELEHENA,
UZTAILAREN 5ERA,
ZAPATUA

17:00 – 22:00

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren
Inguruak

GARGANTÚA

EKAINAREN 30ETIK,
ASTELEHENA,
UZTAILAREN 5ERA,
ZAPATUA

17:00 – 21:00

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren
Inguruak

GARGANTÚA

Gargantua et Pantagruel legenda frantsesean inspiratuta, Bilboko irudi ikoniko hau 1854an hasi zen haurrak irensten eta, gaur egun ere, haren ahoa eta txirrista izuaren sinonimoa dira txikienentzat.

Antonio de Echániz, "Etxaniz suhiltzailea" ezizenez, oso-osorik Bilbokoa den erraldoi horren sortzailea izan zen. Gargantua, erraldoia izateaz gain, aseezina da.

Bizitza ona eta munduko plazerrak gogora ekarri nahi zituen figura hori 1854. urtean atera zen lehen aldiz herriko kaleetara. Ordutik, milaka haur jan ditu kalera atera denean, hainbat aldaketa izan ditu eta desagertzeaz ere egon da.

Lehenengo aldiz 1854an atera ondoren, Gargantuaren irudi erraldoia osteko 20 urteetan ere atera zen, 1874an bomba batek suntsitu zuen arte. 1897ko jaietan, herriak hala eskatuta, Gargantua berriro agertu zen, eta 1934an Higinio Basterra eskultoreak beste bat sortu zuen. 1950ean azken aldiz agertu ondoren, Gargantua Deustuko biltegi batean abandonatu zuten.

1962an, jaietara itzuli zen eta, beste abandonu-aldi baten ondoren, berreraiki egin zuten, behin betiko, Bilboko Aste Nagusiarekin lotuta egoteko.

Gero eta ospe handiagoa zuenez, Gargantuaren bertsio berriak sortu ziren.

BIZKAIA
ARETOA-
UPV/EHU

Casilda
Iturrizar parkea
Parque de
Doña Casilda

ARRIAGA
PLAZA
ETA
AREATZA/
ARENAL

Casilda
Iturrizar parkea
Parque de
Doña Casilda

i

W.C.

2. GUNEA
ESPACIO 2

1. GUNEA
ESPACIO 1

3. GUNEA
ESPACIO 3

AHATEEN
URMAELA
ESTANQUE
DE LOS PATOS

FOODTRUCKS
GARGANTUA

4. GUNEA
ESPACIO 4

MUSEOAREN
GUNEA
ZONA DEL
MUSEO

PERGOLA

PERGOLARANTZ
PASEALEKUA
PASEO HACIA LA
PÉRGOLA